

Geroxeago, apirilaren 27an, Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zion hirugarren omenaldia - benetan instituzionala oraingoan-; urrezko domina ezarri zion eta Gipuzkoako seme kutun izendatu zuen.

Laugarrena Euskal Herriko Unibertsitateak egingo dio udazkenean, eta bertako "Doctor honoris causa" izendatuko du.

Karlos Santamaria ezagutzen duenak badaki ondotoxoz ez zaizkiola batere atsegin horrelako omenaldiak, berari dagozkionez behintzat, ingurukoak berari begira jartzea ez zaiolako, eta horrelakoetan urduri jartzen delako. Hala ere onartu egin ditu omenaldiok; ondo onartuak eta eramanak, gure ustez.

Kultur alorreko gizon-emakume ospetsuei egiten zaizkien horrelako omenaldiek sortu ohi dute inguruan zalantzatxoren bat. Batzutan gizarteak horiekiko duen kontzientzia txarra zuritzeko ere izan ohi dira seguruenik; ordain edo medeaperaren zentzua hartzen dute orduan omenaldiek. Omenduak izan ohi du sarritan horrelako goraipeak eta aitopenak berandutxo ote datozkion susmoa, ez zahartzaroan etorri ohi direlako bakarrik, eta bai batez ere inorentzat "kalterik" ekarriko ez duten momentuan etorri ohi direlako. Baina bizitzaldi luzean ikasitako zuhurtziak ironia pixka bat erantsia die seguruenik, irriparez onartu ahal izateko bakezko omenaldiok.

Gogoeta inuxenteok aparte, Karlos Santamariaren aldeko ekintzok benetan poztu gaituztela esan behar dugu. Mereziki zituela? Bai, horixe! Baina ez da merezimenduen kontua bakarrik, eta bai bereziki aurrera begirako proiektuarena.

"Animador cultural" delakoa profesio bihurtu baino lehen Karlos Santamaria kultur eragile bikaina izan da gure Herrian, eta bereziki euskararen eta euskal kulturaren alorrean. Ikastolek (Santo Tomas, etab.), Unibertsitateak (Zorroaga eta), euskal aldizkariak (Jakin, Argia,...) Euskaldunon Egunkariak... badakite askotxo Santamariaren eragin sutsuaz.

Horreagaitik txalogarriagoa gertatu zaigu Foru Aldundiak egin dion omenaldia, hain zuzen ere, aitopenetan eta saritan geratu ez delako, eta, Karlos Santamariaren obra biltzeko eta aztertzeko proiektu finkoaz gain, horren eragin soziala eta kulturala zabaltzeko eta aurrera luzatzeko asmo sendoa agertu duelako.

### **Bertsolari; aldizkari berria**

Literatur aldizkari anitz ezagutu dugu aspalditxo honetan euskaraz: era askotakoak eta iraupen ezberdinekoak. Beti iruditu izan zaigu, ordea, borondate miresgarria eta amets eder

bikaina zeudela horrelako ahalegin tematien azpian; baina sarriegi oinarri sozio-kulturarak huts egiten zuela. Horrelako aldizkariak eskaintza ederra egin nahi izan dute seguruenik; baina eskabidea eskasa izan!

*Bertsolari* aldizkaria, azkena izanik ere, aspaditxoko esbideari erantzutera datorrela uste dugu. Orain hirurogei urte sortu zen izen bereko aldizkari haren eta oraingo berriaren artean urte askotxo igaro dira; eta seguruenik ez da beti eskabide soziala berdina izan; baina seguruenik hortxe egon da azpian eskabide modukoren bat, bestelako aldizkariak eta egunkariak neurri apal batez bakarrik betetzen saiatu direna.

Baina *Bertsolari* ez da literatur aldizkari soila, bertsolaritza Herri honetan literatur fenomeno soila ez den bezala. Fenomeno sozio-kulturala da bertsolaritza, azken urteotan handitu eta zabaltzeaz gain, gorpuztuz eta eratuz joan dena. Horren fruitu eta seinale da atera berria den aldizkaria.

Bertsolaritza betidanik izan da fenomeno sozio-kulturala: literatur generoak eta literatur zaletasunak gainditzen dituen fenomeno. Eta literaturako teori eta kritika-liburuen kapituluetan sartu denean ere, edo literaturako bildumetako apalak bete dituztenean ere, bertsolaritzak gertakari sozio-kultural iraun du. Eta unibertsitateko azterketarako alor akademiko bihurtu denean ere, eta bertsolaritzako artea ikasteko eskola bereziak eratu direnean, eta eskoletan asignatura serio bihurtu denean, bertsolaritzak ez du bere izaera sozio-kulturala galdu, handitu eta hedatu baizik.

Bertsolarien -eta betsozaleen- elkarteak ez du zerikusirik ezagunak ditugun literatur klub eto tertuliekin. Berrito ere literatura soileko mundua gainditzen duen fenomeno sozio-kulturala eratzeke forma berria da elkartearena.

Horra *Bertsolari* aldizkariaren eskabidearen arrazoia, eta horri opa diogun bizi oparo eta luzearen oinarria. Argi dago, lehen zenbakia ikusirik, aldizkari berria ez dela literatur gazera ahizkoetako, ez komentzionaletako eta ez komentzioetatik irten ohi diren horietakoa ere. Bertsolariez ihardungo zaigu -eta bertsolariak bertso-sortzaileak dira aurrenik, hau literaturgileak-, eta bertso ederrak eskainiko dizkie bertsozaleei; baina iruditzen zaigunez, bertsolaritzaren fenomeno sozio-kulturazkoa jasotzeko, aztertzeke eta... erazteke jaio da *Bertsolari* aldizkaria.

## **Hizkuntz aniztasunari buruzko konferentzia Barcelonan**

Apirila hasieran, hizkuntz aniztasunari buruz Barcelonan egin ziren ihardunaldietan izan ziren EKBko nazioarteko harremanetarako batzordekideak. Hasieratik ihardunaldietako xedeak argi ez bazeuden ere, partaideak ezagutzeko eta esperientzien elkar trukaketarako aukera handiak